DIANE

ETORKIZUNA ERAIKITZEN

IEPALA (1994): *Construyendo el futuro. Foro Internacional de ONG y Movimientos Sociales. Tratados alternativos de Río'92.* Ministerio Obras Públicas, Transportes y Medio Ambiente. Madrid.

Rio Janeiron 1992.ean, "Lur Gailurraren" aurrean, ONGek 'Etorkizuna eraikitzen' konpromezupean burutu zuten foroan ateratako 46 hitzarmen bilduma dugu esku artean. Hau da, munduko 172 Gobernuen aurrean, eta hazkunde sozioekonomikoaz garatu den sistema eta eredu erratuaren aurrean, 1.500 ONGek egindako proposamenak. 3 alorretan azaltzen zen lana: Giza Eskubideen defentsa, Ingurugiroaren defentsa eta Garapen Lankidetzaz ardura. Nazio Batuen Hitzaldiaren aurrean, ONGek ordezkatzen duen -gizarte zibila, txiroen eta abots gabekoen- oihartzuna entzun ahal izan zen. Hitzarmenotan bada "doktrina" nahikorik, eta batez ere helburuak lortzeko itxaropena; bakarrik, egia bihurtuko duen praktika falta da.

Herrien Lurraren Aitorpena (15. orr.)

1. Lurraren hiritarrok, geure dibertsitatearen aberastasunean gizarteaz ikuspegi amankomuna konpartitzen dugu.
2. Batzuen alde sortutako sistema ekonomikoa ezarriz, planetaren degradazio sozio-ekologikoaren kausak ez ahantzi.
3. Bretton Woodseko partaideek (G-7, BM, FMI, GATT) inposatuko eredu mundialak, Gizarte Zibilaren borondatearen eta herrien boterearen aurka jotzen du eta berauen eskubide eta ahalmenak degradatzen ditu.
4. Degradazio hau hazkunde ekonomikoa eta kontsumismoa, eta ez bestelako giza-interesak bilatzera doan garapen ereduari dagokio, txirotze espirituala, gosea, giza desplazamenduak, eta aberats eta txiroen arteko zatiketa areagotuz.
5. Egungo pentsamendu eta praktika politikoan nagusi diren arloek, (nazioarteko zorraren hazkundea, egokitzapen egituralak, komertzio librea,...), autosuntsiketa kolektibora eta ez garapen euskor batera garamatzate.
7. Indar militarra elitearen interesak babesteko & injustizia ekonomikoak sortzen duen kezka soziala zapaltzeko dago.
9. **Kritikaz gain, horra alternatibak**: Gure aukeretarako eredurik ez dagoela badakigu.
10. Eraketa ekonomikoaren helbururik nagusiena, komunitatearen oinarrizko beharrizanak betetzea da: janaria, etxea,..
11. Aurrekoaz gain, giza-bizitza kalitatearen garapena: erlazio sozialak, sormena, adierazpen kulturalak, espiritualitatea
12. Lokal-mailako ekonomiak eratu, autosufizienteak, deszentralizatuak eta beren produktuak kontrolatuko dituenak garatuz, norbere ingurune ekologikoa, soziala eta identitate kultural berezituak indartuko ditugu.
13. Komunitatearen bizitzan eta erabakietan edozeinen parte hartzeko eskubidea. Jatorrizko herrien ekarpena paregabea da eta horien eskubideen alde lan egingo dugu.
14. Biztanlegoaren hazkundearen arriskua dago, baina superkontsumisten hazkundea handiagoa da.
15. Ezagutza-(amaigabea)ren garrantzia, denon onerako da. 'Elkar' hezkuntzaren aldeko konpromezua: balore berriak. (EZAGUTZA →)
16. Zorraz gatiburik egotea, inmorala da, eta nazioarteko zuzenbideta eta zibiletik aparte egon beharko luke.
20. Tradizio erlijioso desberdinen irakaspenak hausnarketa hauetarako aberatsak izan dira.
23. Nazioarteko gizarte zibilaren mugimenduak gure tresna/prozesua izanik, giza-progresoaren esanahia zehazten du.

Rioko Aitorpena (20. orr.)

Mundu osoko ONGok eta mugimendu sozialok, ondoko konpromezu hauek baieztatzen ditugu:

1. Amaigabeko hazkunde-mitoan oinarritutako zibilizazio injustu eta eustezina den ereduaren, eta Lurraren muga jakinen artean dagoen kontraesanaren kontzientzia dugu. Beraz, planetaren eta beronen herrien salbamenduak dibertsitatea, elkarkidetza, justizia eta askatasuna gunetzat dituen etikan oinarritutako zibilizazio berria eraikitzea suposatzen du. Borroka hau ezinezkoa izango da, baldin eta sektore sozial zokoratu eta baztertuenek konpartitzen ez badute.
2. Txirotasun eta aberastasun egituralen iraupena eten asmoz, kategoria ekonomiko hutsera mugatzen den garapen euskor kontzeptua erabat errefuxatzen dugu. Lurralde aberatsek beren hazkunde tasa errebertitu behar dute, nazio txiroek bizitza-maila duinak lor eta buru ditzaten.
3. Planetaren degradazioa eta pobrezia Iparraldeko lurraldeen erantzunkizuna dela jakinik, Hego Hemisferioan eredu eustezin berbera aplikatu nahi dela ere badakigu. Ipar-Hegoaren arteko erlazioa, berdintasun ezean, menpekotasun eta zapalkuntzan oinarriturik egoteak, erronka amankomun batean jartzen gaitu: injustiziak sortzen dituen mekanismoen eta egungo status-quo mantendu nahi dutenen aurka, elkarrekin lan egin beharko dugula.

4. 'Lurraren Gailurrak' sortu zituen espektatibak ezerrezean gelditu dira, nagusigoa duten interes ekonomiko eta boterearen pean, eta nazioarteko gizarte zibilari jaramon egin gabe. Hala ere, erabaki-gune desberdinetan eta horiek kontrolatzeko, hiritar guztion partaidetza aktiboaren alde borrokatuko dugu.
5. Naziozgaindiko korporazio handiak, garapen euskorraren atxakipean, beste nazioak baino botere handiagorantz doazela salatu nahi dugu, eta bai korporazioei, zein merkatu libreari, nolabaiteko kontrol demokratikoa jartzea proposatzen dugu.
6. Egungo gizartearen kontsumo-eredua eta beste batzuk beren beharrizanak eskatzeko ere, gai ez izatea. Esperientzia eta aterabide xeheak baloratuz, herrien integrazioa ez dator merkatuaren integrazioaren bidez, baizik, eta herri bakoitzaren barruan, eta herri desberdinen arteko justizia eta demokraziaren aldeko etorkizun amankomunean.
7. Krisiaz jota dagoen mundu honi egin diezaiokegun aportazioa, dugun dibertsitate kultural, hizkuntzazkoa, etnikoa, generokoa, instituzional eta politikoaren aberastasunetik dator. Gure herri bakoitzaren beharrizanetatik abiatuz, dagokigun lana ikuspegi eta proiektu amankomuna eraikitzea litzateke.
8. Rion-92an eztabaidatutako gai zerrenda eta zapalduenganako konpromezua.

Lurraren gutuna (24)

Sarrera:
- Gu zera gara: Lurra, herriak, landare eta animaliak, ur-tantak eta ozeanoak, basoetako eta itxasasoko arnasketa.
- Guk, Lurraren edertasuna, eta bizitza-dibertsitatea zaintzen dugu.
- Giza-sufrimendua, txirotasuna eta Lurraren degradazioa, botere desberdintzapenaren ondorioa direla errekonozitzen dugu.
- Lurra zaintzeko eta berriztatzeko orduan, erantzunkizun konpartitua dugula onartzen dugu.
- ...

Hastapenak
1. Dibertsitate biologikoa eta kulturala bermatzeko, Lurraren ekosistema errespetatu, erreztu, babestu eta berreraiki behar dugula adosten dugu.
2. Gure dibertsitatea eta kidetasuna onartzen dugu.
3. Txirotasuna denoi dagokigu. Horren lehendabiziko kausa kanpoko zorra, oparotasuna (opulentzia) eta ustelkeria da. Txirotasuna gainditzeak ez du esan nahi ingurunearen degradazioa sortu behar denik, eta edozein kasutan, giza-beharrizanak kontutan hartuko dira.
4. Egungo muga nazionalak, Lurraren errealitate ekologikoarekin bat ez datozela esaten dugu.
5. Gatazkak gainditzeko militarismoa eta presio ekonomikoa errefuxatzen dugu.
....

Lurraren Gutunaren akzio-plana
1. Lurraren Gutunean datozen hastapenak eta espiritua, norbere gizabanako mailan eta geure erakundeetan erabiliko ditugula konpromezua hartzen dugu.
ZIUNTEA → 2. Lurraren Gutuna zabaldu asmoz, egungo mekanismoak zein nazioarteko sare informatzailea erabiliko dugu ahalik eta bazter guztietara helerazi dadin.
3. Lurraren Gutuna planetako hizkuntza guztietara itzuliko da.
4. Helburua-1995 izenaren bidez, ONUren 50. urteurrenean bere egitea konprometitzen gara.
7. 1999. urtean ospatuko den Foro Globalerako deialdia egiten dugu.

5. Taldean agertu den kidetasun eta dibergentzia maila.

6. A. Cortina bere artikuluaren azkenaldean badirudi, "Estatua-Gizarte Zibila" eskemaz gelditzen dela. Horren aurrean, R. Daleren eskema hirukoitza dugu, "Estatua-Kapitala-Gizarte Zibila", edo eta J. Habermasena, "...diruaz bitartekatutako ekintza eremua (ekonomia), botere administratiboaz (politika) eta giza-elkarkidetzaz (mundu bitala)" (Cortinaren 152. orr.). Horrez gain, Ballesterosen ideia hau dugu, "Una democracia que,... busca ante todo el respeto a lo inalienable de la persona, tanto frente al Estado como frente al mercado" (Ballesterosen 14. orr.). Zein eskema iruditzen zaizue osoena eta zergatik?

7. Cortinaren arabera, "gizabanakoak *autonomiaz* horniturik, *bizitza-proiektuak* izateko gauza, eta *justizia zentzuaz* jantziak agertzen dira",... "eta *sistema sozialek ahalmen hauen garapena eragoztean, gizatasun gabekoak dira*" (144. orr.), ideiek zein hezkuntza planteamendu, aplikazio eta ondorio dituzte irakasle baten iharduera hezitzailean?

8. Europako Hitzarmenaren helburuak eta Mendizabalen artikuluaren "Beste herrien aurkako "prozesu zibilizatzailea" kontutan hartuz, zein ondorio ateratzen duzue Euskal Herriko hezkuntza egoerarekiko?

III – Talde bakoitzak idatziz entregatzeko

0. Ikastaldea, lanaren izenburua (artikuluen egileak) eta taldeko partaideak.
1. Taldean ados etorritako ideien zerrenda.
2. Taldeko partaideen artean agertutako kontrako ideiak
3. Besterik.

emon ta zabal zazu
universidad del país vasco
euskal herriko unibertsitatea

DEPARTAMENTO DE DIDACTICA Y ORGANIZACION ESCOLAR
DIDAKTIKA ETA ESKOLA ANTOLAKUNTZA SAILA

ESKOLA ERAKUNTZA (3. Ikasmaila)
(Bigarren hausnarketa ariketa)

R. **Dale**, A. **Mendizabal** eta A. **Cortina** egileen artikuluak irakurritzat emanez, eta egindako laburpen zein eskemaz baliaturik, lehenik pertsonalki hausnar ezazu, eta gero, taldean zeure iritziak plazaratu ondoren, sakon itzazue hurrengo gaietan.

I. Pertsonalki erantzuteko

1. Idatz itzazu, autore bakoitzaren gehien interesatu zaizkizun pare bat ideia edo esaldi.

2. Artikulu horiekin (bakoitzetik bat edo bi) ados ez zauden laupabost ideia edo esaldi.

3. Bila eta idatz itzazu ondoko hitzen definizioa: kapitalismo, gatazka, klase borroka, nazionalismoa,... polítika, globalizazio, neoliberalismo, kanpo-zorra, oinarrizko beharrizana, menerapen (dominación), egitura, hegemonia,... eta beste.

Horrez gain, zure interesen arabera, Pérez Gómez-en "Valores y tendencias que presiden los procesos de socialización en la época postmoderna" artikuluan agertzen direnak.

II. Taldean eztabaidatzeko gaiak.

4. Taldeko beste kideen erantzunik garrantzitsuenak.

PARTAIDETZA IDEALA ETA GIZARTE ZIBILA

LABURPENA
Gizarte zibila

CORTINA A. (1993): *Etica aplicada y democracia radical*. Tecnos. Madrid. 143- 157.

1. Partaidetza ideala

Egitura sozialak eta gizabanakoaren arteko dialektika. Haiek pertsona errespetatzen ez dutenean, injustiziak irauten du (143. orr.).

Gizabanakoak *autonomiaz* ornituak, *bizitza-proiektuak* izateko gauza, eta *justizia zentzuaz* jantziak agertzen dira (144. orr.), eta *sistema sozialek ahalmen hauen garapena eragoztean, gizatasun gabekoak dira* (144). Hortik dator, egungo sistema politikoak duen demokrazia errepresentatiboari egiten zion kritika. Kontutan hartu behar da, gizarte zibila, gizartearen dimentsio publikoa ere badela, eta berton autonomia burutu, interes orokorrrak defenditu eta partaidetza sozial esanahitsua eduki daitekeela (144).

Beraz, partaidetza idealak, Hegelek ezarritako Estatua <----->Gizarte Zibila bikotea aldatu baharra dago. Estatua ez baita interes orokorren babesle, eta gatazkan dauden sektore desberdinen interesen oreka lekua izatez gain, egungo munduak oreka horretatik haratago joan beharko luke (144).

2. Historiaren penduloa

Bizitza pribatu eta publikoaren arteko joan-etorri historikoa, eta arlo bakoitzak giza-existentzian utzi duen dezepzioa, eta ea zein ote den arrazionalagoa eta moralagoa (145).

Askapen idealek bultzatuta, egituren eraldakuntzan sartu izan direnak, eta bestetik, norberaren bihotz aldaketaz sinesten dutenak agertzen zaizkigu. Modernitatearen txanpon sozialaren bi aurpegiak: publikoa (politiko-estatista) eta pribatua (gizarte zibila) (146). Bilakaera historikoan gizarte zibil burgesa z/denaren ezaugarriak hauek dira: indibidualismoa, pribatasuna, ahulenganako merkatu legea, interes pluralistak, eta klase existentzia (146). Eta galdera, inmoralitatean jausi gabe nola aukeratu horrelako gizartea, baldin eta moralitatea elkarkidetzaren, berdintasunaren eta interes unibertsalistak betetzearen garaipena bada? (146).

3. Desenkanto politikoa

Pertsona konprometituetan ere, zergatik eman da mesfidantza politikoa?.(148).Kausak:

1. Ustelkeria (korrupzioa) eta politikaren deslegitimazioa.
2. Bizitza politikoan ere manipulatua izatearen sentsazioa.
3. Denontzako aberastasunaren bila eta/ala boterearen bila?
4. Estatismoan, gizartea eta gizabanakoa ez dira esistitzen.
5. Hiritarren protagonismo politikoa, aldikako botoa bakarrik ematea da.

Estatua, Gizarte zibila eta Kapitalaren arteko erlazioak (149) - (Ikus R.Dale) ,...,eta *gizarte zibilak unibertsalismo eta elkarkidetza potentziala handia dauka* (150),..., baina edozein kasutan, *beharrezkoa da bihotzaren eraldakuntza* (150).

4. Hegeli azken agurra: Gizarte zibilaren potentzial etikoa

M. Walzer-en ideia: gizabanakoa ez da soilik pertsona politikoa, edo produzitzailea, edo kontsumitzailea edo nazio bateko kidea, ideologia politizista, ekonomizista, kapitalista edo nazionalistak nahi duen bezala. *Gizakidea lehenik eta behin gizarte zibileko partaidea da*; zeina familia, laguntasun edo auzoa, eliza, kooperatibak edo mugimendu sozialetatik hasita, "koertzio gabeko giza-asoziazioaren espazioa eta berau betetzen duten erlazio-sare multzo"-raino iristen baita (151).

A. Gorz-en ideia: *gizarte zibila*, gizabanako eta talde berdintsuen arteko nahizko lankidetza dagoen erresuma ez estatala da, eta *Estatua*, gizarte zibila koordinatzeko eta zerbitzatzeko beharrezko den erakunde hierarkikoen esfera. Bien osogarritasuna legoke (151).

J. Habermas: mundu bitalean *interes unibertsalez gidatutako asoziazio-sare* indartsuak sortu beharraz ari da; eta ezkerra ez marxistak sare horiek bultzatu beharko lituzke (152). Habermas-en bereizketa: alde batetik, diruaren (ekonomia) bidez, eta botere administratiboaren (politika) bidez tartekatutako esparru-akzioa, eta bestetik, elkarkidetza (mundu bitala); lehengo biei arrazionalitate estrategioa dagokie, eta hirugarrenari arrazionalitate komunikatiboa (152).

Estatuaren berreraldaketa: hiritarren eskubideak bermatzea, ez soilik eskubide politikoak eta zibilak babestu, baizik, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen justizia banaketan inplikatzea, eta gizarte zibilari dagozkion eginkizunetan erraztasunak ematea. Zein ote da gizarte zibil berraldatuaren egitekoa? (153-154).

5. Gizarte zibilaren etika: eskubideetatik erantzunkizunetara

- Egungo filosofia liberal/sozialista eta berauen legalitatea/moralitatea (154).
- Gutiengoko zuzenbidea eta justizia, giza eskubideak eta giza-duintasuna (154).
- Gizabanakoen jarrera defentsibo soilean justiziarik espero liteke? (155).
- Gizakide berririk ez dago bihotzaren aldaketarik gabe? (155).
- Elkarkidetza positiboa, eta elkarrizketaren bidez, hura eta justizia integratzea. (155).
- Justiziaren aldarrikapena eta erruki eta laguntza aldarrikapen desberdinak (155).

Laburpena: A. Cortinak defendatzen duen ideia: familiatik, auzotik, laguntasunetik, mugimendu sozialetatik, talde erlijiosoetatik, interes unibertsalez mugitutako asoziazioen bidez, elkarkidetza eta justizia sor ditzakeen gizarte zibilaren aldeko aldarrikapena egiten du (157).

*** Hausnartzeko ideiak**

1. Gizabanakoa, gizarte zibileko partaide eta/edo/ala komunitate bateko partaidea da?
2. Estatua-Gizarte zibila dikotomia eta R. Daleren eskema osagarria.
3. Euskal Herrian aplikatzeko ba ote beste eskema posiblerik?
4. Estatu baten gizarte zibil zati bat/mugimendu sozialak aurka daudenean zer?
5. Estaturik ez duten komunitatearen/gizarte zibilaren kasua?
6. 'Gizarte pluralista', 'interes pluralistak' ideia burgeseriarena ote da?
7. Gastu sozialak gutxitzen diren lekuetan gizarte zibilak zer egin lezake?
8. Zelan ezkon litezke euskaldunen eta erdaldunen arteko hizkuntz eskubide indibidual/kolektiboak, egungo Konstituzio Espaniarraren 3. artikulutik haratago?
9. Norbanakoaren aldaketa, talde/komunitatearen aldaketa eta egituren aldaketaz.
10. Gizarte hezkuntzan arituko den hezitzaile baten konpromezua etikoa nola zehaztu?